

Azoka  
**BER** gara  
tzen



**BATERATZE SAIOA**

**2014ko apirilaren 08a.**

Bateratze saioaren helburua, AZOKA BERGARATZEN prozesuan zehar azoka biziberritzeko ildoan eta 1go sektoreko ildoan egindako lana eta adostutako proposamenak, eraturako taldeen artean partekatzea izan da. Honela bananduta egindako lana komunean jarri eta denok ezagutzea lortu da, proposamen zehatzen gainean adostasunera iristeko. Horretarako, udaletxeko pleno aretoa erabili da arratsaldeko 18:30etan.

## ▪ Nortzuk hartu dute parte bileran?

Ekonomia lokala, Herri eragileak eta 1go sektoreko taldeetako bileratan parte hartu duten pertsonak izan dira bateratze saioaren protagonista.

Izenak	
Beñat Lete Txintxurreta	Pili Arin
Asier Larrañaga	Jexus Agirre Unamuno
Asier Latorre	Esther Zarraua
Nere Aspiazu	Arturo Garitano Askasibar
Aser Polvorosa	Julen Azkoaga
Nerea Mendizabal Urreta	Jose Mari Izagirre Aiastui
Viki Szombathy	Agurtzane Diaz uribide
Maialen Hernandez	Maren Belastegi
Nagore Narbaiza	Arianne Kareaga
Onintze Guridi	Andoni Larrañaga
Maddi Larrea Ormazabal	Onintze Guridi

## ▪ Bileraren nondik norakoak.

Bateratze saio honek, honako gai ordena izan du:

1. Sarrera
2. Taldeen gogoeta eta proposamenak
  - 1go sektorea
  - Ekonomia lokala
  - Herri eragileak
  - Udala
  - Beste ideia batzuk
3. Lan dinamika

- a) Adosteko
  - b) Zehazteko
4. Balorazioa

Sarrera eta bateratze saioaren kokapena egin ostean, talde bakoitzean adostutako proposamenak aurkeztu ditugu hurrengo powerpoint aurkezpenarekin:

<p><b>1go SEKTOREA</b></p> <p>Hilabeteko lehenengo asteazkenean •Arratsaldez (udan 18:00-21:00, neguan 17:30-20:30)</p> <p><b>EKAINAK 4</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Dastaketa egitea             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez da garairik onena produktu aldetik eta erabakiko da.</li> <li>- Azokan bertan prestatzea</li> </ul> </li> <li>- Garaiko produktuen errezetak oparitzea</li> <li>- Goizean dagoen lora saltzailea ere geldituko da</li> <li>- Barazkiez gain, gazta, eztaia etab.</li> </ul> <p>- Maiatzean zehar merkaturatze teknika eta produktu apainketan ikastarotxo bat egitea baserritarrentzat</p> <p><b>UZTAILAK 2, ABUZTUAK 6 eta IRAILAK 3</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Xaboi ikastaroa</li> <li>- Beste ekintza osagarriak bilatzea</li> </ul>	<p><b>Ekonomia Lokala</b></p> <p><b>Edukia</b></p> <p>Aste barruan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Artisauak</li> <li>•Eskulanak erakusten dituztenak</li> <li>•Jarduera erakutsi eta salmenta bateratua</li> </ul> <p><b>Antolaketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Asteazkena</li> <li>•Hamabostero edo hilean behin hastera</li> <li>•Parte hartuko duten pertsonen artean dosifikatzea proposatu da.</li> </ul> <p>Astebukaeran:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•2. Eskuko azokarekin hastera proposatu da, artisau eta eskulanak bertan txertatuz.</li> <li>•Trukea (liburuak, jostailuak, altzariak, bildumak etab)</li> <li>•Egun aproposena: Igandea</li> <li>•Hilabetean behin</li> </ul>
<p><b>Herri Eragileak</b></p> <p>Herri eragileen jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•ASPACE             <ul style="list-style-type: none"> <li>•Boccia erakustaldia</li> <li>•Saskiak egiteko kit salmenta eta erakusketa</li> </ul> </li> <li>•Taun-Taun             <ul style="list-style-type: none"> <li>•Helduentzako txontxongilo mostra beste espazio batzuen artean, azokan</li> </ul> </li> <li>•Bestelakoak             <ul style="list-style-type: none"> <li>•Erramu zapatuko ferian egiten diren txorimaloak, lehiaketa ondoren azokan ikusgai lagatzea</li> <li>•Liburuak hartu eta lagatzeko toki bat</li> </ul> </li> </ul>	<p><b>Udala</b></p> <p>Bergarako Udala</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Poltsa berrerabilgarriak</li> <li>•Eskuorriak</li> <li>•Informazio panelak egitea (azokan uzteko, barruan eta kanpoan)</li> <li>•Maiatzean lore eta landareekin apainketa ikastaroa</li> <li>•Maiatzean Mintegi azoka</li> </ul>
<p><b>Beste ideia batzuk</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•<b>Apainketa:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Urtaro bakoitzeko apaingarriak (auzolanean egitea)</li> <li>•Argazki historikoekin mural bat.</li> <li>•Postuen apainketa (ASPACE otarrak uzteko prest)</li> </ul> </li> <li>•<b>Erakusketak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Baserriko tresna zaharrekin erakusketa</li> <li>•Margo erakusketa</li> <li>•Musika Eskolako erakustaldiak</li> </ul> </li> <li>•<b>Ikastaroak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Sendabelarrak</li> <li>•Jaboiak</li> <li>•Saskiak egitea</li> <li>•Natur baliabideekin egindako lanak</li> <li>•Landare aromatikoekin erabilerak</li> </ul> </li> <li>•<b>Hitzaldiak:</b> Herrikoak diren edota herriko gaiez jardun duten hainbat pertsonaiekin elkarrizketa publikoak egitea proposatu da.</li> <li>•<b>“Berduri Hall”</b> berreskuratzea</li> <li>•<b>Beste ekintzak:</b> margolaritza azkarreko txapelketa, musika zuzenean, umeen argazki rallya, herri kirolak....</li> </ul>	

## ▪ Talde dinamikan jasotako ekarpenak.

### A. Adostekoak:

Behin aurkezpena eginda, talde desberdinetan identifikatutako gai komunak adostea izan da saioaren lehen lana:

#### 1) Hileko lehen asteazkena indartzea:

- Talde desberdinetan asteazkena identifikatu da astean zeharreko egunik proposena moduan. Beraz, guztiok erakutsi dute adostasuna egun horretan ekintzak gauzatze aldera.
- 1go sektoreko taldeak baserritarren azoka hilabeteko lehenengo asteazkenean egitea proposatu duenez, beste taldeek proposa ikusi dute egun horretara batzea.

#### 2) Poltsa berrerabilgarriak (leloa eta irudia)

- Poltsa berrerabilgarrien erabilera sustatzea ondo dago, baina azken finean plastikora jotzen dugu beti, eta gaur egun jende guztiak ditu mota horretako poltsak.
- Kapazo eta karroak erabiltzeko ohitura berreskuratu beharko genuke.
- Birziklatutako gaiekin (kamisetak adibidez) poltsak egitea posible dela aipatu da.
- Irudia eta leloa erabakitzeko prozesu parte-hartzaile edo lehiaketa bidez egitea proposatu da. Eskoletan egiteko zailtasunak aipatu dira, ikasturtea bukatzeaz dagoelako. Lehenengo poltsak zuzenean ateratzea erabaki da, eta aurrerago, behar ezker, eredu horrekin poltsak egitearena.
- Poltsak AZOKA BERGARATZEN leloarekin ateratzea adostu da.
- 1.000-1.500 poltsa, kopuru egokia izan daiteke.

#### 3) 2. eskuko azoka zein igandetan

- Lehenengo asteko asteazkenean Baserritarren Azoka izango da hiler, eta ekintzak denak pilotuta egon ez daitezela, 2. eskuko azoka hirugarren astean egitea adostu da. Hau da, hilabete bakoitzeko 3. Igandean.
- Beste ekarpen batzuk:
  - Ondo legoke eskualde mailako ekimena izatea, hilabete bakoitzean herri batean. Modu horretara, herri ezberdinetako jendea anima daiteke "postua jartzera".
  - Errazagoa izango da gauzak uzteko toki finko bat egongo bada azokan, non jendeak eramandako gauzak pilotatzen joango diren, aukera gehiago izateko. Bideragarriago ikusten dut.
  - Hemen ez dago kulturarik norbere etxeko arropa eta trasteak saltzeko.

## B. Zehazteko

Hauek adostu ondoren, hainbat gai talde guztietan eztabaidagai izan dira, baina asko sakondu gabe, eta proposamen zehatzetan bihurtu gabe, beraz hurrengo pausua gai hauek zehaztea izan da:

### 1) Apainketa nolakoa izan behar da, eta nola gauzatuko da

- Zutabeak
  - Zutabeak koloretan margotzea proposatu da. Urtaro desberdinak irudikatuko dituen koloreekin zutabeak multzoka margotu daitezkeela aipatu da.
  - Beart-ekin hitzegin beharko litzateke, apainketa artistek egin dezaten modu txukun batean.
  - Zalantza: zutabeetan artistek marrazten badute, ondoren erakusketa bat jarriko genuke zutabeak erabiliz? Kasu batzuetan ez da bateragarria izango, bat edo bestearen kaltetan.
  - Panelak edo bionboak urtaroak adieraziz egin daiteke. Hasieratik irudia definituta badago ondoren auzolanean egin daiteke margoketa.
- Apaingarriak
  - Zutabeetan apaingarriak jartzea proposatu da. Urtaro bakoitzerako apaingarri bereizgarriak jarriaz.
  - Apainketa umeekin egitea proposatu da baina auzolanean egitea polita bada ere, arriskua dago "txapuza" bat izateko.
  - Azokako argazki zaharrekin (artxiboan asko egongo dira) azoka apaintzea ideia ona da, erakusketa iraunkor bezala. (Eskoriatzan argazki zaharrak erabili dituztela aipatu da, eta argazkientzako markoak ikastaro baten bitartez egin dituztela, ondoren politenak argazkiak erakusteko erabili direlarik)
  - Bestelako argazkiak ere izan daitezke apaingarri: baratzeak, frutak, barazkiak, loreak, etab.
- Lan asko da, beraz printzipioz iraunkorra izan beharko litzateke. Urtaroka apainketa aldatzea ideia polita da, baina horretarako denbora eta baliabide asko behar da. Zaila da.
- Espazio hotza dela eta herritar batzuk "obserbatuak" sentitzen direla komentatu da. Ez dauka irtenbide errazik baina erdian panel batzuk zintzilikatuta edota bionbo sistemaren batekin txukuntzeaz gain irtenbidea eman ahal izango zaio arazoari.

- Azoka kanpoaldea erakargarriago egin behar da: panelak jarri, eskailera inguruak txukundu, etab.
- Herrian ere, hormaren bat hautatu daiteke azokaren edo 1.go sektorearen gaia bertan islatzeko.

## 2) Asteazken arratsaldetako azoka nola osatu daiteke

- Produktuen dastaketak: adibidez, irailean tomate klase desberdinak, neguan babarrunak ...
- Artisauak: Adibide batzuk: Narrua, Angiozarreko Igor eta Arrate; Taila, Beñat; Bitxigintza, Irati,...; Serigrafia, Katrin; Esku-pilotak, Madinabeitia;...
- Errezetak: banaketa eta bilketa (jendeari produktu ezberdinekin egiteko errezetak eskatu).
- Musika.
  - o Herriko talde eta musika estilo ezberdinek kontzertu edo emanaldia egin dezakete azokan.
  - o Musikak beti erakartzen du jendea, beraz garrantzitsua da kanpo aldera ere musika jartzea.
- Osasun aholkuak ematea, elikadura eta osasuna lotuz sasoi bakoitzean.
- Ikastaroak: tematikaren arabera, bateragarria izango da salmenta azokarekin edo ez, beraz ez edozein ikastaro.
  - o Sendabelarrak.
    - Belarrak jasotzeko irteera batekin.
  - o Ukenduak.
  - o Sukaldaritza.
    - Landare aromatikoak eta espeziak sukaldean erabiltzea
    - Gluten gabeko sukaldaritza
    - Gozogintza, ogia, ...
  - o Puntua, gantxilloa, bolilloak eta bestelakoak egiten ikasteko oinarrizko ikastaroak.
    - Makrame teknikaz lorontziak egiteko ikastaroa.
  - o Ontziratze eta kontserba ikastaroa.
  - o Udazkenean perretxikoen ikastaro eta deshidratazio zein kontserba aukerak.
  - o Tinte naturalak.
  - o Argizaria eta kandelak.
  - o Kamiseta margoketa.
  - o Gomazko pultseren tailerra
- Jarduerak:
  - o Taila

- Zeramika
- Bolilloak
- Aspaceko otargintza
- Badira bi eskola baratzea dutenak (Mariaren Lagundia eta San Martin). Agian, beraien produktua ere asteazkenen bateko azokara ekar dezakete.

### C. Aipatu diren beste gai batzuk:

- Azokako sotoa txukundu beharko litzateke eta erabilera eman.
- GaraiOn-ek ikastaro eta ekimen oso interesgarriak egiten ditu: hurrekin ekintzak, dekorazio ikastaroak naturako elementuekin, etab.
- Hurrekin ere lehen sektorearekin zerikusia duten ekintza desberdinak antolatu daitezke: ardilatxaren bila, baserritarrak+haurrak ekintza konkretuetan, ...
- Abuztuan musika ekitaldiren bat antolatu daiteke aldameneko plazan.
- Ikuskizunik badago, elikadura edo baserria gai duena?
- BIZILURreko erakusketa ekar daiteke azokara.
- 2. Eskuko azokan, taldetxo bat prest agertu da gozogintza ikastaroak eman eta dastatzeak egiteko. "Club de pasteleria" bat dute eta denetik egiten dute: gailetak, ogia, pastelak, alergiak ere oso kontutan dituzte, ...
- Hondakinekin eta gai desberdinekin eskulangintza eta sormen tailerrak antolatzeko pertsona bat prest agertu da, customizazioa, ...

## ■ Balorazioak.

Behin talde dinamika amaituta, saioaren gaineko balorazio bat eskatu zaie parte hartzaileei, saioaren gaineko aspektu positibo eta negatiboak azpimarratuz:

Positiboak	Negatiboak
Oso aberasgarria itxen jat bileretara etortzia, jende desberdina batu eta hizketan egotia	Jende gutxiago parte hartzen.
Parte hartu duen jendearen jarrera eta ilusioa.	Hasieran jende gehiago zegoen, orain gutxiago
Ondo	
Oso ondo	
Positiboa da ohitura zaharrak berpiztea, horregatik bilerak oso interesgarriak iruditu zaizkit. Denon artean erabakiak	

<p>hartu izana</p> <p>Oso ondo. Egokia denboretan eta egunen eta taldeen dinamizazioan. Orain zailena...</p> <p>Grupos de trabajo estar abiertos para todo tipo de ideas</p> <p>Aberatsa</p> <p>Jende ezberdina, esparru ezberdinetakuak</p> <p>Ondo antolatuta. Aurrelanak eginda, dinamika oso interesgarria.</p> <p>Oso ondo joan da.</p>	
--	--